MAMUARI SO

NEOLIBERALISMOA VS BURUJABETZA

Floren Aoiz

Elkarrizketatzailea: Idoia Zengotitabengoa

2020
IRAILA

Iratzar fundazioko bi kideren arteko elkarrizketaren ondorio da liburu hau: Idoia Zengotitabengoak Floren Aoizi galdera sorta luzea egiten dio, gure garaia ulertu eta ditugun erronkak aletu nahian. Mamuaren irudia darabilte kapitalismo neoliberala eta horrek artikulatzen dituen zapalkuntzak izendatzeko. Horrela, neoliberalismoaren ezaugarritzea eta ibilbidea aztertzen dute, kapitalismoarekin dituen loturak eta gizartean zer modutan eragiten duen agerian uzteko. Ideia bat nagusitzen da gogoetan, besteen gainetik: neoliberalismoa herritarren burujabetza neutralizatzeko estrategia den heinean, herriaren eta herritarren burujabetza da neoliberalismotik harago egiteko gakoa. Neoliberalismo desdemokratizatzaileari, beraz, bazter guztietara zabaldu beharreko errotiko demokratizazioaz erantzun beharko zaio.

Iparrorratza sailaren bigarren alea da liburu hau.

SAIAKERA KOADERNOA

ISBN: **978-84-18252-24-2**
ORRIALDEAK: **120**
FORMATUA: **12 x 19**
PREZIOA: **11,00 €**

Iparrorratza saila **2**

Liburuko esaldi bat:

“Neoliberalismoa egitura sozioekonomikoak dira, finantzarizazioa, globalizazioa, postfordismoa, informatika eta robotizazioa, plataformen kapitalismoa, arretaren ekonomia... Eta, horiekin guziekin batera, arrazionalitatea ere bada, munduari so egiteko modu bat, begirada bera antolatzeko era bat, gure bizitza pertsonal eta kolektiboaren atal guzietan eragin nahi duena”.

FLOREN AOIZ MONREAL
(Tafalla 1966). Jarrai mugimenduan aritu zen lehenik eta beste euskal erakunde politiko batzuetan ondoren; Herri Batasunan, esaterako, mahai nazionalean aritu zen eta Jon Idigorasekin batera bozeramaile, eta parlamentaria izan zen Nafarroan, 1987tik 1997ra. HBko zuzendaritzako kide izateagatik, zazpi urteko kartzela zigorra ezarri zioten. Espainiako Auzitegi Konstituzionalak bertan behera utzi zuen epai hura 1999an, eta aske utzi zuten. Espetxetik atera zenetik, hainbat komunikabidetan analisi politikoa egin izan du, eta, argitaletxe honetan bertan, liburu hauek kaleratu ditu: *La vieja herida* (2002), *El jarrón roto* (2005), *Más allá de 1512* (2013) eta *Tres tristes trileros* (2016). Bestalde, *¿Por qué no te callas, Borbón?* (2008) liburu kolektiboan parte hartu zuen eta Xabier Makazagaren *La red, el tormento en la España constitucional* (2008) saiakerari hitzaurrea jarri zion. Memoria historikoarekin eta independentismoarekin lotutako zenbait elkartetan parte hartu du. Gaur egun, Iratzar fundazioaren zuzendaria da, Sortuko Kontseilu Nazionaleko kidea da, Espainiako estatuaren mendeko herrien erakunde subiranisten koordinazioan parte hartzen du eta *Gara* egunkarian zutabeak idazten ditu.

9 788418 252242

txalaparta
Tfno. 948 703 934 | info@txalaparta.eus
www.txalaparta.eus